Gogoan hartu damutu baino lehen

Seguru egoteko, fidatu zure artekariarekin.

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu.

Hileroko buletina
Nº 24 / Otsaila 2015

Auto aseguruaren NANa: 10,9 milioi ezbehar urtean.

Zenbat aukera duzu istripu bat edukitzeko?

Unesparen arabera, 29.680 ezbehar-aitorpen egiten dira Espainian egunean, eta aseguru-etxeek 7.914 milioi euro ordaintzen dituzte urtean horiengatik. Ezbeharren %50etan 36-55 urteko pertsonak egoten dira nahastuta, eta asteburuetan astegunetan baino ugariagoak izaten dira.

Erne! **Gure ibilgailu-parkea 28,9 milioi ibilgailukoa da, eta hirutik batek ezbeharren bat edukitzeko aukera du urtean: beira-haustea, lapurreta, asistentzia, kalte propioak, erantzukizun zibila**…

Zenbat balio du zure autoak?

Bi faktorek eragiten dute ibilgailu bat erosteko orduan: arrazionalak eta emozionalak. Krisia dela-eta, sentimenduen aurretik jarri dira numeroak. Baina hala eta guztiz ere, diru-kopuru handia bideratzen dugu erosketa horretara, oraindik.

Autoa berria bada, batez besteko prezioa 18.845 eurokoa izaten da (deskontu eta promozioen ondoren). Finantzazioaren zenbatekoa kontatu gabe, gainera. Erabilitako bat erosten badugu, kostua 11.000 eurora iritsi daiteke.

Eta asegurua?

Lehenik eta behin **derrigorrezkoa da.** "Bai edo bai" kontratatu behar duzu gidatzeko eta besteri edo gauzei eragin diezaiekezun kalteetatik babesteko.

Hau da nire galdera: **auto batean milaka euro gastatu eta zuhurkerian ibiltzen zara zure erosketa bermatuko dizun aseguruaren prezioarekin?** TZeuk ikusi. Baina aseguru-artekari baten aholkua nahi baduzu…

- **Arrisku Orotarako** asegurua zure autoak **3-5 urte** baditu da gomendagarria.
- Hortik aurrera, gutxienez 3-5 urtetik aurrera **Hirugarrenentzako asegurua, sute eta lapurreten kontrakoarekin, asistentzia juridikoarekin eta beiren aseguruarekin** (beira-hausteak bakarrik 1,1 milioi ezbehar dira urtean) **zabalduta**. Kalte propioen ondoriozko gehieneko kalte-ordaina jaisten doa pixkanaka, zure autoaren salmenta-balioari lotuta baitago (ezbeharraren aurreko salmenta-balioari, alegia).

Kalkula ezazu zenbat ordaindu duzun zure autoa (finantzazioa batuta). Aseguruaren prezioa eta "gidari ona" izateagatik dituzun hobariak gainbegiratuko ditugu.

Asko dira bizitzan inoiz ezbeharren bat izan duten pertsonak. Eskatu aholkua, eta beharrezko estaldurak dituen aseguru bat kontratatzea merezi duela ikusiko duzu.

"Nekeetan, irria ezpainetan". Partzuergoak 3.800 ezbehar babestu ditu, urtarriletik, eta 34 milioi ordaindu ditu uholdeengatik

Hilabete eta egun batzuk bakarrik pasatu dira 2015eko otsailetik. Konpentsazio Partzuergoak uholdeek Espainian kaltetutako lekuetara bidali ditu bere perituak. Premiazko lehenengo estimazioaren arabera, 3.800 ezbehar izan dira, eta 34 milioi euroko kostua edukiko dutela aurreikusten da.

Euriak, elurteek eta haize bortitzak ondorio larriak eragin dituzte Espainiako leku askotan, Burgosen, Kantabrian, Bizkaian, Nafarroan, Errioxan, Aragoin eta Galizian, besteak beste.

Horrelako ezohiko egoeretatik babesteko sortu zen **Aseguruen Konpentsazio Partzuergoa, ondasun aseguratuak kudeatu eta indemnizatzen dituena**; beraz, Partzuergotik kobratzeko, aseguru bat eduki behar da kontratatuta; ez baduzu, EZ dago kalte-ordainik.

Adibide bat: **2012. urtean 584.000 espediente izapidetu zituen, 2.226 milioi euroko balioarekin.**

Eta egoera horietan, aseguru-artekariok izapidetzen ditugu ezbeharrak, berehala, Partzuergoarekin "eskuz esku". **"Aholkatu, bezeroari asegurua erosi aurretik, erosi bitartean eta erosi ondoren lagundu eta babesa eman, bere ondoan egonda"**, zure interesak babesten baititugu.

Zorionez, ia gertaera guztiak babesten ditu **"aseguru industria"k**. Bestela, **zenbat kostatuko litzaioke Espainiari asegururik ez edukitzea?** Bere **BPGd-a halako 14,** gutxi gorabehera**.**

Gogoan hartu damutu baino lehen
Hileroko buletina / Nº 24 / Otsaila 2015

Erne!

Neguan, sute arriskua

Zerua garbi eta eguzkia bazegoen ere, elur izoztua teilatuetan behera isurtzen zen egun hartan. Birramonak gonamahaiko sutontzi elektrikoa piztu zuen, eta mantelaren gonekin estali zuen. Lau ordu zeramatzanean martxan, erretzen hasi ziren flekoak. Su-garra minutu gutxitan zabaldu zen, eta ke itxia eragin zuen. Arratsalde hartan, 5 urteko biloba zaintzen ari zen birramona. Haurrak kaleko atea zabaldu zuen, eta eskailerara irten zen. Kasualitatez, auzoko batek itzali zuen su bortitza, suitzalgailu batekin.

Nekez ahazten den esperientzia beldurgarria da etxeak su hartzea; 2013. urtean 132 pertsona hil ditu suak Espainian, eta 2014ko hilabeterik hotzenetan, 83, Suhiltzaile Teknikoen Elkarte Profesionalak (APTB) erregistratu duenez. Sute gehienak etxe partikularretan izan dira, eta hildakoen erdiak baino gehiago 65 urtetik gorakoak ziren.

Suak indar handia du, baina amore ematen du bigunagoa eta tematsuagoa den urarekin. Gure herrialdeko**"klima mediterraneoa"** baltsamo bat da, eta ezbeharren ondoriozko munduko indize baxuenen artean kokatzen du Espainia, milioi bat biztanleko 2,8 heriotzarekin (Europan, Holandak eta Suitzak bakarrik gainditzen dute). Gure klimaren ontasunek ez gaituzte berogarriaren hain mendeko egiten.

Arriskua handitu egiten da neguan

Ehun mila biztanletik beherako herrietan bizi diren 65 urtetik gorako pertsonak dira kaltetu nagusiak. **Suteen protagonistak berokuntza-gailuak (%29) eta elektrizitatea zein erretzaileak (%20) dira.** Suteak egongelan edo logelan hasten dira.

Baina… Ongi aseguratzen ditugu gure etxeak? Eta gure gurasoenak?

Sute-arriskua oinarrizko estaldura da etxeko aseguruan. Poliza horrek leherketetatik, ketik, kedarretik eta fenomeno atmosferikoetatik babesten zaitu, besteak beste. Eta suhiltzaileen eta erreskate gastuak estali behar ditu.

Nola jokatu

Prebenitzea sen onari kasu egitea da. Alegia, **berokuntza sistemak behar bezala erabiltzea, entxufeak ez gainkargatzea, zigarroak ongi itzaltzea eta erabili ondoren gailu elektrikoak deskonektatzea, aireztapen-saretak sekula ahaztu gabe.** Zure segurtasuna da aurrena.

Anekdota

"Edan baduzu, ez gidatu." Aseguruak EZ zaitu babesten

Espainiarren %64k ez dakite auto aseguruak ez dituela babesten alkohola kontsumitu ondoren ezbeharren bat badute. Gidaria atzerritarra bada, gure herrialdeko egoiliarra, eta lege-urratze bat egiten badu edanda egonda, baliteke espainiar nazionalitatea EZ eskuratzea.

Are kezkagarriagoa da **inkestatutako 10 pertsonatik 8k** ez jakitea norbaiti autoa laga eta pertsona hori kaudimengabea izanez gero bera dela gidari horrek eragindako kalteen erantzule, baldin eta alkoholemia kontrol batean positibo eman badu, baita asegurua arrisku orotarako bada ere.

Nolanahi ere, gero eta kontzienteago gara alkoholak gidatzerakoan dituen ondorioen inguruan. Pertsonon %26k etxera eramaten dugu edanda dagoen gidaria, eta %23k giltzak kentzen dizkiogu. Europako Automobilisten Elkarteak (AEA) **"Edan egin badu, ez utzi gidatzen"** kanpaina egin duenak, egindako inkestaren datuak dira.

Ikerketa

"Jotzen duenak ordaintzen du beti?"

"Auto batek atzetik jo nau gogor, eta nik aurrekoari eman diot. Semaforo batean geldituta geunden biok. Eragindako kaltea ordaindu behar dut?"

Zure artekariaren erantzuna. Kasu honetan, EZ. Hirugarren autoak ez bazintu hain gogor jo, ez litzateke desplazamendua gertatuko eta ez zenukeen aurreko autoa joko. Beraz, zu jo zaituen autoa egingo da bere autoaren aurreko aldearen, zureen (aurreko eta atzeko aldeak) eta zure aurreko autoaren konponketen kargu.

Beste gauza bat da lehenengo autoak abiadura moteltzea, zu ez konturatzea eta horri jotzea, eta azkenengo autoak ere zu jotzea, despistatuta. Kasu horretan, bakoitzak berea eta aurrean duen autoaren konponketa ordainduko du.

Aholkua. Bete "adiskidetasunezko istripu-aitorpena". Talka multipleetan, hobe da lehenbailehen akordio batera heltzea; baina zalantzarik edo desadostasunik badago, deitu Udaltzaingoari, atestatua egiteko, onartzen bada "adiskidetasunezko istripu-aitorpen" gisa jokatuko baitu.

Depósito Legal M-41589-2012
Edita: E2000 Financial Investments S.A.

ASEGURU ARTEKARIOK
Onestasuna Konpromisoa